



## GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO 2002 -2016KO PLAN OROKORRAREN 2008-2016RAKO AURRERAPEN AGIRIAREN ERANSKINA

### FINANTZIAZIO SISTEMAK

Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002 -2016ko Plan Orokorraren 2008-2016rako Aurrerapen Agiriari buruzko inbertsio konpromisoak finantzatzeko sistemak hiru esparru ditu:

- Hiri hondakinak biltzeko zerbitzuaren kudeaketari lotutako udalen eta mankomunitateen eskumenak, ahalmena duten tokiko entitateen aurrekontuen kargura finantzatzeko direnak, erabiltzaileek ordainduko dituzte zerga gisa. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorraren 2008-2016rako Aurrerapen Agirian ez da agertzen orain arte erabilitako finantzaketa sistema aldatzen duen inbertsio konpromisorik.
- Gipuzkoako Hondakin Kontsortzioaren bitartez kontsortziatu diren udalen eta mankomunitateen eskumenak, zorpetze finantzario pribatuaren kargura finantzatzeko direnak. Gipuzkoako Hondakin Kontsortzioaren kudeaketa mankomunitateei emango zaie dagokion tarifaren bitartez eta horiek, berriz, udalen esku utziko dute, hondakinak kudeatzeko zergaren barruan sar dezaten.
- Babes publikoa emango zaio Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren kapitalizazioari Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpenaren bitartez, hain zuzen ere, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorraren 2008-2016rako Aurrerapen Agiriak hondakinak bideratzeko kudeaketarako aurreikusitako inbertsioen %33 jarriko du Aldundiak, hori ezartzen baita Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Eraketa Hitzarmenean, 2007ko maiatzaren 17koan.

Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002 -2016ko Plan Orokorraren 2008-2016rako Aurrerapen Agiriak aurreikusitako inbertsioak abian jarri ahala, zehazten joango da hondakinen kudeaketak sortutako gastu guztien gaineko zerga, pixkanaka sistemaren barruan sartuko diren inbertsio elementu berrien amortizazio kostua barne.